

**AKTA
(2017/03)****EUSKERA AHOLKU BATZORDEA**

Bilkura:	Ohikoa
Data:	2017ko azaroak 9
Lekua:	Gaztelekua (Kultur Etxea)
Hasiera-ordua:	19:05
Amaiera-ordua:	20:35

Etorritakoak:

Batzordeburua: Juan Karlos Agirre
AEK – Iratxe Garmendia
Berialagun – Marimar Hernandez
Besalde – Anabel Alegria
Eleizalde ikastola – Lexuri Markina
Eleizalde ikastolako gurasoen sarea – Eneritz Ruiz
Erroxape – Marijose Lopez eta Maribi Martinez
Euskeraz Berbetan – Albert Zarate
LAB sindikatua – Ramon Garaizar
MB2000 aisialdi elkarteak – Maribi Larrinaga
Osasun etxea – Iratxe Lamikiz
Zinegotzia – Benito Ibarrolaza
Zinegotzia – Aritz Abaroa
Zinegotzia – Jon Goikolea
Zinegotzia – Idoia Platas

Ezin etorria adierazi dute:

Bermeoko hizkuntza eskola – Miren Unzueta
Herri ikastetxeko guraso elkarteak – Xabier Uriagereka
Batun batun aisialdi elkarteak – Maite Atxikallende
Kultura Saila – Susana Regidor
Hitza – Olaia Zabalondo
Sagrado Corazon Ikastetxea – Asier Abaroa
Salica – Aintzi Laburu
GIZ – Iñaki Lopez

Teknikari aholkularia: Maite Alvarez

Idazkaria: Maite Alvarez

Aztergaiak**1.- Aurreko akta irakurri eta onetsi**

Ez da egin ezelako iruzkinik eta akta onetsita geratu da.



2.- Euskararen Plan Estrategikoa (2018-2022) lantzeko proposamena

Aktibazio taldea sortu da Plan Estrategikoa lantzeko, ohi baino partaide gazteagoengana jo dugu eta erantzuna oso ona izan da, hain zuzen, 16 lagunetatik, 20-30 urte bitartekoak 9 dira, 31-40 urte bitartekoak 3, eta 41-50 urte bitartekoak eta 50 urtetik gorakoak, 2na.

Bilera bi aurrekusi dira, lehena urriaren 25ean, aztergaia izanik “euskararen egoeraren diagnostikoa eta egindako lanaren balantzea”. Horrekin batera, eta aurrera begira jartzeko, zer aldatu nahi dugun galdetu zitzaizen taldekideei.

Bigarren bilera azaroaren 15ean izango da, lehen bileran jasotako ideia eta proposamen guztien artean identifikatu diren erronkak eta proiektu berriak lantzeko.

Jasotako ekarpen guztiekin Plan Estrategikoaren dokumentua idatziko da eta ekarpenak jasoko dira baita ere Aholku Batzordearen aldetik, Euskara Batzordearen eta gobernu taldearen aldetik eta herritarren aldetik. Udaleko Sail jakin batzuekin kontrastatu gura da eta azkenik, komunikazio-ekintzaren bat egingo da, jakinarazteko.

3.- Euskarak 365 egun egitasmoa

Egitasmo honen xede nagusia da hizkuntza ohiturak aldatzea epe luzeko lan progresiboaren bitartez, pertsonen eta entitateen erantzukizun partekatua izango duena eta Euskal Herriko erakundeak eta euskalgintza elkarlanean landuta.

Helburu orokorrak, honakoa dira: inertziak apurtzea, aldeketasun sinbolikotik, urrats praktikoetara igarotzea, pertsonen hizkuntza ohiturak aldatzen saiatzea eta egunerokoan eragitea eta tokian tokiko euskaltzaleen sareak (ber-)aktibatzea eta indartzea.

Orain arte, hainbat herritan eta auzotan izan dira aktibatze esperientziak eta emaitzak onak direla ondorioztatu denez, Euskal Herri osora zabaltzeko elkarlanean ari dira Euskara Elkarteak Topagunea, Eusko Jaurilaritza, Nafarroako Gobernuak eta Ipar Euskal Herriko Elkargoa eta horiekin batera, parte hartzea erabakitzen duten herri guztiak.

Herrietan garatuko den egitasmoak ezaugarri komunak izango ditu, hala nola, tokian tokiko errealitatera egokitutako dinamikak planifikatuko dira, ekimen kolektiboa izanik, babes soziala beharrezkoa duena. Egiteko moduak eta prozesuak dute garrantzia eta orain arte izandako esperientziek erakutsi dute emaitza positiboa dela. Kanpainetatik harago joan nahi duen lan-ildo oso baten parte da.

Egitasmoaren muina izango da parte hartzen duten herri, auzo eta eskualde guztietan **11 egun euskaraz** egiteko hautua egitea 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra eta 16 urtetik gorako herritar euskaldunek parte hartu ahal izango dute.

Parte-hartzaile mota bi bereizi dira:

- Ahoibizi: Ulertzen duenari euskaraz egiten diot, hark erdaraz erantzun arren. Eta ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egiten diet.



- Belarriprest: Egidazu euskaraz; nik erdaraz zein euskaraz erantzungo dizut

Nola egin gura da lan hau?

Elkarlanean, euskalgintza eta erakundeak parte direla, prozesuari garrantzia emanda, herri bakoitzean batzordea eratuta. Beste alde batetik, garrantzi handia ematen zaio herritarrek prestatzeari eta ahobizi edo belarriprest izateko izena ematea beharrezkoa izango da.

Egitasmoaren bidez, helburu zehatz hauek ere lortu gura dira: euskaldunek euskara gehiago erabiltzeko urratsak ematea, tokian tokiko euskalgintza aktibatzea, entitateek euskaraz aritzeko neurriak har ditzaten sustatzea eta 11 egunetan hiztunen artean sortutako dinamika ekimenaren ostean mantentzea.

Koordinazio orokorretik hainbat lan egingo badira ere, herriz herri, egiteko hauek izango dira:


- Talde motorra eta batzordea martxan jarri
- Ekimena herrira egokitu
- Herriko ekimenerako baliabide ekonomikoak lortu
- Entitateak inplikatu eta urratsak probokatu
- Parte-hartzaileentzako formazio-saioak antolatu
- Komunikazio-euskarriak egokitu
- Herriko izen-ematea sustatu: txapak produzitu eta banatu
- Herriko ekimena ebaluatu
- Aurrera begirako planteamendua landu herrirako

Eta baliabide hauek behar izango dira:

Tokiko dinamizazioa eta antolaketa, formazio/motibazio saioak, tokiko komunikazioa bideratu, materiala ekoiztu eta hala erabakiz gero, ekintza edo ekitaldi bereziak.

Lasarte-Orian landutako esperientzian egindako neurketatik ondorioztatu daiteke saiatzeak merezi duela:

Euskararen erabileraren bilakaera *ahobizien* kasuan (%)



Eta Bermeon zer egingo dugu?

Aurrelanak zehaztuta daude, abiatze hiru saio adostu dira Topagunegaz, lehena, Kike Amonarrizen hitzaldia abenduaren 14an. Horren ostean, talde motorrean ariko direnentzako prestakuntza-saio bi egingo dira urtarrilean eta dinamizatzailerak martxan hasiko da.

2018ko lehen hiru hilabeteetan batzordea osatuko da eta plangintza zehaztuko du. Besteak beste erabakiko du norengana jo, zenbat lagun inplikatu nahi diren eta zelan berotu giroa, baita formazioa eta komunikaziorako estrategiak eta bideak, erabiliko diren euskarriak (bideoak, informazio-orriak...). Beste alde batetik, finantziatorako bideak zehaztuko ditu, hau da, Udalaz gain, beste eragile batzuen inplikazioa.

Herriko egutegia osotuko bada ere, data batzuk zehaztuta daude:

- . 2018 lehen hiruhilekoa: batzordea eta dinamizatzailerak martxan hasi eta herrien izen-ematea
- . 2018ko iraila: herritarren izen-ematea
- . 2018ko iraila-azaroa: formazioa
- . 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra: 11 egun euskaraz
- . 2019: entitateen urratsak ikusgarri

Hauek denak ikusi eta gero, taldeetan jarrita, galdera hauen erantzunen bila abiatu gara:

Nola sentiarazten nau ideia honek? Hitz batez adierazi

- Aktibo
- Ilusioneta
- Itxaropentsu
- Txiki-txiki
- Animeta – Poztasuna
- Itxaropena
- Animeta
- Korapiloa
- Gogoa
- Egingarria
- Ardura (erantzunkizuna)
- Konpromisoa
- Pozik
- Motibatuta
- Kritiko

Zer behar dugu ekimen hau abiatzeko?

- Alkarlana
- Aurkezpena
- Kontzientziarazioa, honen beharrezkoa ez dauenak ikusten, beste batzuentzat aproposa
- Kontzientzia biztu
- Gogoa, ikarak albo baten itxita
- Antolaketa, korapiloa askatzeko
- Gogoa
- Ilusioa
- Motibazioa



- Egituratzeko bat
- Konpromisoa
- Komunikazio plan potente bat
- Talde motor potente bat
- Dinamizatzaile bat egotea

Norengana jo batzordea osatzeko? Nik zer egin dezaket?

- Entitateak: dendariak, tabernariak, enpresa, erakundeak
- Herritarrak: erreferentzialak, ezagunak, gizarte mugimenduak, txokoak
- Gazteak batez be eta gurasoak. Herriko eskolako guraso elkartera joan. Batzarrean parte hartuz
- Jende desberdinetara. Ahal dotena
- Lagundu. Ikastolatik ahal den neurrian zabaldu (web orrialde edo euskaraz bizi blogetik). Euskera taldeari laguntza eskatu.
- Kultur talde guztiengana, kirol talde guztiengana, hezkuntzara, norbanako konkretu batzuegana. Geure inguruan daukagun sarea identifikatu eta ahal dela beste jende batengana heltzeko bideak jorratu.

Dinamizatzailea beharrezkoa da?

- Bai
- Idealki, ez
- Bai, zalantza barik
- Bai, ezinbestekoa

Nola eman ikusgarritasuna?

- Hemen bakarrik ez da egingo (Euskal Herrian)
- Ikus entzutezko baliabideak
- Beste herrietako adibideak eta lorpenak azalduz, argazkiak, bideoak, whatsappetik
- Ez dakit, ahoz ahoz
- Inplikazioa, pertsonen arteko komunikazioa indartu, sarea. Delegatu dinamizatzailean?
- Bideo ikusgarri bat eta sare sozialen bidez zabaldu
- Kanpainen bidez (komunikazio planari lotuta)

Zenbat ahobizi aktibatu gura ditugu?

- 2000, 1500, 1300
- Ezagutzen ditudan euskaldun gehienak neugaz euskeraz egitea
- 1000
- Bermeoko euskaldunen %30etik gora

Zenbat belarriprest aktibatu gura ditugu?

- 500/600
- 300
- 1000
- Bermeoko ia euskaldunen %30etik gora



Aktibaziorako gida

Hizkuntza ohituretan eragiteko esperientzien bilduma

Iturria: www.bagera.eus

Deskarga: <https://drive.google.com/file/d/0B0ktSDpLjzsHOHNZVXBZR1JuNnM/view>

4. Saioaren balorazioa



- Enpatxotik itzaropenera
- Gogoia
- Interesgarridxe eta pozgarridxe
- Gogoia eta ilusioa
- Ilusioa eta proiektu berran hastea
- Parte hartzea eta inplikazioa
- Alkarlana
- Ondo egon da
- Alkartutie eta erabakia danok hartzea
- Neuretzako programa ona da



- Eta instituzinoak zer?

